



«Sustraiez hitz egiten dugunean kontu esentzialetara jotzen dugu askotan, baina nik pertsona egiten nauten balioak arakatzean feminismoak eta genero ez-adostasunak topatu ditut sarri»

Nor da Mr. Señora? Eta... zeintzuk dira bere ileordeak?

Mr. Señora antzerki bakarrizketa bateko protagonista bat da, baina baita ere hainbat ideia plazaratzeko maskara edo ileordea. Batetik, Mr. Señorak arrarotasuna eta armairutik ateratzea ditu aldarrri, bizitza ikusteko moduen lagungarri. Bestetik, bada omenaldi umil bat ere: sustraiez hitz egiten dugunean kontu esentzialetara jotzen dugu askotan, baina nik pertsona egiten nauten balioak arakatzean feminismoak eta genero ez-adostasunak topatu ditut sarri. *Mr. Señora* bakarrizketak hartu du liburu honen idazketan indar gehien kontzeptu gisa, eta horregatik egin du jauzi titulura, baina funtsean zazpi antzezlanen bilduma bat da, horiek dira beste ileordeak.

«Hautu-estimua. Hautu-laguntza. Hautu-terminazioa». Zer da liburu hau, askatasun pertsonala edo kolektiboa?

Zein da diferentzia? Estuki lotuta ikusi izan ditut beti biak, elkarrekiko talkan eta orekan. Horrelako «palabro» eta kontzeptuak darabilzkit antzezlanotan helburu bakarrarekin: galderak egitea, umoretik, ironiatik, elkertasunerako eta probokaziorako gogotik. Antzezlanotan ez dut erantzunik proposatzen, kontraesana eta zalantza darabilzkit tresna politiko gisa, helburua ezerosotasuna kutsatzea eta ideia-blokeetan zirrikituak sortzea delako. Modu ideal batean pentsamendu bakarraren kontra idatzitako lanak dira, pentsamendu bakarra norberarena denean batez ere.

«Adorazioa, yo-gurtzea da», «ahatez-ahatekoa», «A poka elipsis guau»; «Australiako pitekus»... Hobe dugu gainera jausten ari zai-

guna umorez hartzea? Edo, zure hitzekin esanda; «jende alai da iraultzaileena. Alai egoteko arrazoirik sekula ez dagoelako, alai egotea iraultzailea da», ezta?

Beti gustatu izan zait ideia «handien» alboan absurduaren ispilua jartzea. Lagun batek esaten zuen moduan, bere buruaz barre egiten ez dakiena ez da pertsona serioa.

Liburu honetan badira zure barruan luza-roan egon diren lan batzuk... Ze epetan eta nola landu dituzu obra hauek?

Urte ugari eman dut Metrokoadroka kolektiboan lanean eta beste hainbat jenderekin elkarlanean. Lan asko eszenara iritsi dira, beste asko tiraderetan geratu dira edo oso modu puntualean eramanez ditugu oholtzara. Bigarren taldekoak dira liburu honetako lanak: zaharrena 2006 urtekoa da (*Bi ahots*) eta berriena liburu honetarako berariaz idatzia izan da (*Mr. Señora*). Beste bostak bi horien arteko epean idatzitakoak dira. Bazen karga poetiko handiagoa zuten hainbat lan ere, baina horiek kanpoan utzi ditugu liburuaren osotasunaren mesede.

2010ean Artezblaik argitaratu zuen *Arra.arra-roa* lana bilduma honetan sartu duzu, *bonus track* gisa. Zergatik?

Zalantza asko eduki dut, baina hasieratik ibili da ideia hori bueltaka. *Arra.Arra-roari* eszena-testu bati gerta dakioken gauzarik ederrena gertatu zaio: jendeak

gogoetarako tresna baliagarri bat topatu du hor, antzerki tailer ugaritan erabili da lanerako partitura gisa, esaterako. Zentzu horretan, Artezblaiako edizioa urrun geratu da, ez da erraza eskuratzen, eta banuen testua berrikusteko eta eskuragarriago uzteko nahia. Edizio honetarako oharrez garbitu eta atal berri bat gehitu diogu: «Antimani-festua», lehen aldiz argitaratu zenetik sentitutako bulkada batzuk agertzen dituena. Azkenik, «Mr. Señora», «Hautudeterminazioa» eta «Arra.Arraroa» gogoeta lerro berean kokatzen ditut, eta interesgarria iruditu zitzaidan elkarren ondoan joatea.

Arra.arraroa, arraroa izan da gai horrek izan duen hedapena. Segur asko ezer gutxi saldu arren, zeresan ugari eman du eta, lotsa ematen dizula dakigun arren, baita tesina bat ere. Zeintzuk izan dira horretarako arra-zoiak?

Salmenta daturik ez dut. Zeresana eman du, nire harridurarako, pozerako eta urduritasunerako. Hala ere, nahiago dut testuak bere kabuz hitz egin dezan. Konfiantza dut sormen lanen autonomian, sormen-lanak ia beti dira haien egileak baino interesgarriagoak. Neu inoiz saiatu izan naiz genero ez-adostasuna agertzen duten gaiak buruzko artikuluren bat idazten, baina etsi dut; badago gai horiei buruz hitz egiteko

oso ondo prestatua dagoen jendea. Nik egiten dakidan bakarra zera da: neronek eta nire inguruko kalekumeok sentitzen ditugun kontuak idatziz jartzen saiatzea, eta horrekin gogoetan jarraitzeko materialak eskaintzea, ahalik eta zintzoen eta umoretsuen. Hortik aurrera, ez dut oso argi zer pentsatzen dudan nire pentsamenduei buruz.*

maiatza

liburu gomendatua

Oier Guillan MR. SEÑORA

Wikipediaren arabera, «lleordea edo bilordea ile sintetiko zein naturalaz egindako ordeko adatsa da. Buruan jartzen da eta arrazoi estetikoengatik erabiltzen da. Gizon-emakume askok jantzen dituzte ile-galera disimulatze-ko». Baina, batzuetan, disimulatze-ko egin beharrean, bakardadeaz, norberkeriaz, heterosexualitateaz, minaz, jelskortasunaz edota sudurreko ileez hitz egiteko jantzen ditugu ileordeak eta armairutik ateratzen gara. Umoretik, ironiatik, elkertasunetik eta proboziorako gogotik sortuak diren zazpi antzezlan hauek pentsamendu bakarraren kontra idatzitako lanak dira, pentsamendu bakarra norberarena denean batez ere.



Aldaketa
apirilaren
25a
baino lehen

0512001 TXALAPARTA

ANTZERKIA

200 or.

Salneurria 17,50 €

Bazkideak 14,00 €



Oier Guillan (Larratxo, 1975). Donostiako periferian jaioa, bere lehen urtetik Oretetari atxikia bizi izan den arren. Idazlea, kazetaria, antzerkigilea. Mikelazulo kultur elkartearen hasi zuen sormen-lanei loturiko bidea. Literaturan *Eskuen sustraiak*, *Herio heroi/Arra.Arraroa*, *Hura ez da lekua* eta *Elkartasun basatia* ditu azken lanak. 2008tik Metrokoadroka kolektiboko kidea da, bertako lagunekin taularatu ditu *Poza*, *Zertarako Hegoak*, *Su izan nahi* eta *Salto* bezalako lanak. Dejabu, Anakrusa, Rouge Elea taldearen kolaboratzailea izan da, *Gabrielen lekua* (2013) eta *Nola belztu behar zuria* (2014) proiektuetan parte hartzailea.